

Kudeaketa txostena

08

2008ko Kudeaketa Txostena

Bazkide agurgarriak:

Ekitaldi guztietan bezala, GEROA PENTSIOAK BGAEko datu adierazgarrienak laburbildurik azaltzen dira, ekarpen, prestazio eta erakundeko garapenaren ohiko atalak, hain zuzen ere, gardentasun eta kalitate osoko informazioa izan dezazuen, entitateko garapena balioztatu ahal izateko.

Aportatzen duten Sektoreei dagokienez, 2008ko ekitaldian bi sektore berri barneratu dira: Bulego eta despatxoak eta Merkataritza orokorra, biek %0,20ko ekarpenekin.

Halaber, bi sektore; Gipuzkoako metalgintza eta Eraikuntzak, %0,30 eta %0,20 gehitu dituzte ekarpen ehunekoak hurrenez hurren. Ildo berean, Gipuzkoan hitzarmen sektorialarik ez duten hamar enpresek ere %0,17 eta %0,97 artean gehitu dituzte ekarpenak; Legaia Taldea, Cementos Rezola, Savera Taldea, Zahor, Kateak Lantegiak, Aspace, Manufacturas Oria, Aspace Egoi. eta etxebizitzak, Asedir Gestión eta Irunena.

Sektore bakoitzaren ekarpenaren ehunekoa desberdina da, baina beti langileen oinarritzko kontingentzi aruntari dagokio. Ekitaldi honetan honako taulan ezartzen diren ehunekoak aplikatuta dira:

<i>Sektoreak</i>	<i>2008ko Guztizko Ekarpenaren %</i>	<i>Sektoreak</i>	<i>2008ko Guztizko Ekarpenaren %</i>
Metala	%4,30 - %0,30 ko hazkundera	Larru arloko merkataritza	% 1,60 Aldaketarik gabe
Zeramika	% 3,50 Aldaketarik gabe	Metala arloko merkataritza	% 2,00 Aldaketarik gabe
Zuraren industria	% 2,00 Aldaketarik gabe	Garbiketak	% 2,50 Aldaketarik gabe
Garraio-kudeatzaileak	% 3,00 Aldaketarik gabe	Hornitegiak	% 4,00 Aldaketarik gabe
Okindegiak	% 1,20 Aldaketarik gabe	Fruten handizkariak	% 2,50 Aldaketarik gabe
Beira	% 3,50 Aldaketarik gabe	Errepid. zeharreko garraioa	% 1,50 Aldaketarik gabe
Eraikuntza	%3,70% - %0,20 ko hazkundera	Lokalak, ikusk. eta kirola	% 1,00 Aldaketarik gabe
Papera	% 1,20 Aldaketarik gabe	Bulego eta despatxoak	% 0,20 Aldaketarik gabe
Altzariak eta osagarriak	% 1,00 Aldaketarik gabe	Merkataritza orokorra	% 0,20 Aldaketarik gabe
Ehun arloko merkataritza	% 1,60 Aldaketarik gabe		

2008ko abenduaren 31n ekarpen gordinen guztizko zenbatekoa 95,1 milioi eurokoa da, hau da, % 11,57 hazi da aurreko urteko datuei dagokienez.

Urtearen amaieran, 142.485 bazkide arruntek egin dituzte ekarpenak gutxienez ekitaldi batean; hortaz, aurreko ekitaldiarekiko % 6,89ko gehikuntza eman da. Bestalde, entitateko onuradun kopurua 2.239 da.

Era berean, ekitaldi honetan 12.566 bazkide babeslek edo enpresek egin dituzte ekarpenak, hau da, aurreko ekitaldian baino % 25,76 gehiago.

Erakundearen ondarea, 2008ko abenduaren 31an, 736,92 milioi eurokoa da (kopuru horretan ez dira barne hartzen ez mutualitate-funtsa, ezta biziarteko errentetarako hartutako konpromisoen ondoriozko desbideratzeak estaltzeko eraturako hornidurak ere), aurreko ekitaldiarekiko % 6,02ko gehikuntza izan duelarik. Ekitaldiko funtzionamendu eta amortizazio gastuak 1,989 milioi eurokoak dira.

Langileek bereganatutako gastuen portzentajea kudeatutako batez besteko ondarearen % 0,275 da. Inbertsio kolektiboko instituzioetan eta arrisku kapital entitateetan burututako inbertsioen komisio inplizituak kudeatutako batez besteko ondarearen %0,191 da.

EGOERA-BALANTZEA

2008ko abenduaren 31n, mila eurotan.

AKTIBOA

Ibilgetua	766
Inbertsioak	724.034
Interes periodifikatuak	19.026
Hainbat zordun	4.314
Diruzaintza	11.328

PASIBOA

Fondo Propioak	788.302
Ekitaldiko galerak	-37.294
Arrisku Prest. Hornidura	8.276
Hainbat hartzekodun	184

AKTIBOA GUZTIRA

759.468

PASIBOA GUZTIRA

759.468

GAINB. KONT. EZ GAUZATUAK.

1.819

GAINB. KONT. EZ GAUZATUAK

1.819

GALDU-IRABAZIEN KONTUA

2008ko abenduaren 31n, mila eurotan.

GASTUAK

Prestazioak, berrasegurua	13.786
Administrazio gastuak	1.989
Inbertsio gastuak	88.295
Hainbat eskubide bateratu	81.274

SARRERAK

Ekitaldiko kuotak	95.059
Inbertsioen sarrerak	51.895
Arrisku Prest. Hornidura	1.096
Ekitaldiko galera	37.294


ZORRAK GUZTIRA

185.344


HARTZEKOAK GUZTIRA

185.344

ONDAREAREN BILAKAERA



2008 B. LIKI- DATIBOAREN BILAKAERA



Partaidetza balioa 1996ko otsailaren 23tik 2008ko abenduaren 31ra, 6,01eurotatik 12,9591 eurotara garatu da.

Finantza merkatuen ebaluaketa

2008ko ekitaldian zehar krisi finantzarioa ekonomi errealean sendo eragin du, BPG berrikusteak gutxituz (ekonomi nagusienetan atzeraldia azalduz), langabezia-tasaren hazkundera, deflazio arriskua eta ekonomi emergenteen hazkunderaren beherakada.

2007an hasitako eta 2008an jarraitutako prozesu honek, berekin ekarri du aktibo guztien balio galtze nabarmenak, higiezin sektoretik hasita, baina enpresen balioespenera azkar zabalduz, hauek jaulkitutako bonuetara eta nola ez beren akzioetara.

Aurrekoaren adibide bat lehengai nagusien prezioa da, urtearen erdialdera arte igoera garrantzitsua jasan ondoren, 2008ko laugarren hiruhilekoan azken hamar urteotan izan den beherakada bortitzena gertatu zen.

Estatu Batuetan, krisia sortu zen herrialdean, finantza sistema guztia berrantolatu egin da. Europako herrialde batzutan egoera amerikakoaren antzekoa izan da eta estatuek finantza erakunde gehienetan parte hartu dute.

Banku Zentralak batera jokatu dute eta aurrekaririk gabeko gertaerak eman dira, EEBB, EB, Kanada, Japonia, Ingalaterra eta Suitzako aldiribereko tasen beherakada urriaren 8an. Horrela, abenduaren tasak EEBBan %0 eta %0,25 bitartean izan ziren eta eurogunean %2,5an.

12 hileko Euriborrak, Espainian ematen diren mailegu gehienen tasa, hiruhilekoa %3,452 behin-behineko datuarekin itxi zuen, bere maila gutxiena 2006ko ekainetik.

Inbertsio zorroa eta entitateko errentagarritasuna

GEROEA PENSIOAK BGAERen kudeaketa-taldek egokitu egin du bere zorroaren dibersifikazioa, eta, horretarako kontuan hartu ditu ekarpen berriak, errenta finkoko errentagarritasun mailak, eta burtsa-merkatu eta truke-merkatuen bilakaera. Batek, errenta aldatokorren mantentzen ziren posizioak gutxituz joan dira, dibersifikazio geografikoari eutsiz. Bestetik, arrisku haumetearen ondorioz, epe laburreko eta ertaineko posizioak eta burtsa merkatuekin loturarik ez duten aktiboen hazkundera nabarmena eman da, 2.009ko helburuak betetzeko zorroa prestatuz.

Guzti honekin, Entitateko ondareak 2.008 ekitaldia gehien bat errenta finkoan gauzatu bukatzen du, % 85,26ko portzentajearekin, % 5,42 errenta aldatokorri dagokio, % 2,78 inbertsio funtsai, %2,17 higiezin inbertsioari, % 1,75 Funts alternatiboen inbertsioari, eta azkenik, % 2,62 Zuzeneko Inbertsioari.

Urteko errentagarritasun netoa %4,888an kokatzen da; hau da, Erakundearen sorreratik %6,16ko balio handitze konposatuko tasa lortu da. Entitateko errentagarritasunaren helburua 2008an izandako %1,4ko inflazioa gainditzea zen.

Akzioetan egiten den inbertsioari dagokionez, % 1,07 inguru Espainiako burtsan gauzatu da. Bestalde, nazioarteko akzioetan egiten den inbertsioa honako entitateek kudeatzen dute: Credit Agricole, Capital Markets eta Erakundeko kudeatzaileek, ekitaldia amaitzean Inbertsio Zorroaren %5,42a errepresentatuz. Entitateak Morgan Stanley-rekin nazioarteko errenta aldatokorra kudeatzeko zuen hitzarmena ekitaldiko lehen hiruhilabetekean hautsia izan da.

Entitateak zorroaren %1,84 ORZA AIEko akzioetan inbertitua du, 4.000.000 €ko aurrerakinarekin batera. GEROEA PENSIOAK BGAEK euskal enpresa alorreko sozietateetan inbertitzeko eratu zen entitatean %50ko partaidetza du. 2008an ORZAren inbertsioak 1.501.000 € Brainco S.L eta 1.250.000 € GED fondoan izan dira. Entitateko errentagarritasuna 2008an %1,18 izan da.

Euroak dolarren parean urtean zehar %4,32ko balioa galdu du. Oso adierazgarria izan zen japoniar yenaren balio-irabaztea gainontzeko dibisekiko, %22 inguru idatzi baitzen dollara eta euroarekiko.

Urteko mugimenduetako ikusgarriena petrolio gordinarena izan zen 140\$/upeletik 40\$/upelera merkatuz espekulaziozko mugimenduen eta atzeraldi iraunkor baten beldurraren ondorioz.

Errenta aldatokorra 2008 galera historikoekin amaitzen du eta arzean hilabete oso gogorrik utzi, finantza sistema gelditzetik gertu izan delarik. Burtsa garrantzitsuenak egoera zaila hau hegazkortasun maila handiakin adierazi dute. Horrela EEBBtan S&P eta Nasdaq-ek %38,49 eta %41,89ko atzerakada ikusi dituzte. Europar, gauzak ez dira hobeto joan eta lbex 35k urteari azken puntua %39,43rekin eman dio, Dax alemaniarrak %40,37rekin eta Cac frantsesak %42,82rekin. Beste indizeak Nikkei bezala %42,12 jaitsi da.

Horrek eragin zuen urteko bigarren seihilekoan, eta nabarmenagariago azken hiruhilekoan inbertitzaileak zorra publikoan babesa bilatzea. Modu honetan, tasa kurben errentagarritasunak, europarra zein amerikarrak, prezioaren alderantziz jokatzen dutenak, beren ibilbide guztietan beherakada ikusi dute.

Berresteko eragiketak emandako errentagarritasunak urtearen lehen erdialdean oso interesgarriak izan ziren, hala ere, iraileko hilabetean diru-merkatuan bizitako urduritasun larrien ondoren, tasak jaisten joan ziren EBZak murrizten zituen araber. Tasen kurba alderantziz jarraitu zuen urteko azken hilabeteetan zehar, epe luzeak epe laburrekoak baino errentagarritasun txikiagoak ematen zutelarik.

Ekitaldiaren amaieran, inbertsio-zorroa 738,99 milioi eurokoa da, likidezia eta kontabilitatu gabeko errenta aldatokorreko ezkutuko gainbalioak barne eta periodifikatutako eta kobratu gabeko interesak kontutan hartu gabe. Erakundearen inbertsio-zorroa baloratzeko erabili den irizpidea honakoa izan da:


Errenta finkoko aktiboak eskuratzeko-prezioan baloratzen dira, jaulkitzaile-arriskua salbu, zentzu honetan Rating agerentzi garrantzitsuen kalifikazioa "Investment Grade" baino txikiagoa diren errenta finkoko aktibo guztiek merkatuko prezioan baloratzen dira. Aktibio horiek euroaz bestelako dibisa batean izendatuta badaude, merkatuko prezioetan baloratu da dibisa hori.

Errenta aldatokorra, arrisku-kapitaleko sozietateak edo funtsak barne, batez besteko eskuratzeko-prezioan baloratzen da, edo merkatuko balioan, azken hori txikiagoa bada, nolahi ere, dibisa-efektua barne hartuaz, baldin eta aktiboa eurotan izendatuta ez badago.

Dibisako posizioak, eskura edo epera, merkatuko prezioan baloratu da.

Orza AIE sozietatea Erakundearen kontabilitate-balio teorikoan baloratu da, haren enpresak eskuratzeko-prezioan baloratuta badaude ere.

Erakundearen Gobernu-Batzordeak, 2.008ko abenduko Batzordean, Inbertsio Printzipioen Adierazpenaren aldatzea onartu du, inbertsio zorroa osatzen duen tipo aktibo batuzten eta besteen banako portzentaia eta multzokoa mugatzeko, arriskua murriztu eta kapitala babesteko helburu iraunkorarekin, indarrean dagoen araudira egokituaz. Merkatu egoeren itzultze helburuetara egokitzeko, inflazio aldaia gainditu nahi da.




Entitateko prestazio eta onuradunen bilakaera

2008. urtean zehar 2.174 prestazio egin dira, 1.389 erretiroaren ondoriozkoak, 315 ezgaitasun osoaren ondoriozkoak, 118 ezgaitasun absolutuaren ondoriozkoak, 8 baliazintasun handiaren ondoriozkoak, 196 heriotzaren ondoriozkoak, 68 atzerapenen ondoriozkoak, eta 10 lan istripuaren ondoriozkoak, langilearen ezgaitasun absolutua, baliazintasun handia edo heriotza eragin dutelarik. Ordaindutako prestazioen guztizko zenbatekoa 13,78 milioi eurokoa izan da. Honez gain, ekitaldi berean, errentengatiko hartutako konpromisoa 5,98 milioi eurotako ia da.

Ezgaitasun edo heriotzaren ondorioz guztira ordaindutako edo hitz emandako prestazioetatik, 480 prestazioek estaldura osagarria izan dute, guztira 8,39 milioi eurokoa. 270 kapital gisa ordaindu dira, eta gainerako 210ak biziarteko errenta gisa eta finantza-errenta gisa ordaindu dira. Abenduaren 31n, 1.456 biziarteko errenta bizi zeuden eta 25 finantza-errenta.

Entitateko Gobernu Batzardeak, 2002ko Abenduaren biziarteko errenten arrisurako hornidura bat osatzea erabaki zuen, konpromisoen %25ean ezarri horniduraren zenbateko



gehiena. Ildo honetan, 2008an zuzkidura 1,27 milioi euro izan da, hornidura osoa 7,51 milioi delarik.

Errenta horiei aurre egiteko GRM/F- 95 taula aktuarialak erabili dira, % 4ko interes-tasa teknikoarekin. Kontzeptu horren ondorioz konpromisoak 30,04 milioi eurokoak dira, Biharko,

Consultoria de Fondos de Pensiones y Entidades de Previsión Social Voluntaria, SAK baloratu dituelarik. Bestalde, ekitaldian errenta finantzario moduan hartutako konpromizeak 0,33 milioi eurokoak dira.

Entitateko estatutu eta arautegiaren aldaketak

2008ko Ekainaren 5ean ospatutako ez ohiko Batzar orokorrean Entitateko Estatutu eta Arautegiaren aldaketa onartu zen. Aipatutako aldaketa Eusko Jaurilaritzak 2008ko Irailaren 9an onartu zuen.

Aldaketak Entitatearen filosofia inoiz ere ez dute aldatzen, hauek direlarik; batetik, birkapitulaketa, xedapen gehigarriak artikulatu barriuan sartuz eta Gobernu Organoei dagozkien artikuluen idazkera azalduz, bestetik, bazkide urrituentzat, beste bazkideek dituzten eskubide berdinak onartzen dira heriotzaren kasuan eta azkenik 92/2007 Dekretura egokitzeko honako ikuspegiak gehitzen dira:

- Bazkide pasiboa eta onuradunaren ezberdintasuna sartzten da.
- Eskubide ekonomikoaren mobilizazioari buruz artikulua bat sartzten da eta beste bat bazkide oso edo aruntzen, bazkide pasiboen eta onuradunen defentsari buruzkoa.
- Bideragarritasun tekniko eta Administrazio gastuen artikulua aldatzen dira.

Bestalde, 2008ko ekitaldian prestazioak errenta moduan kobratzeko diru-mugak eskubide ekonomikoak 14.000 € eta hileko biziarteko errenta 80 € izan dira.

Altak, bajak, intsuldaketak eta mobilizazioak

Lehen aipatu den bezala, 2008. urtean zehar bi sektore berri barneratu dira; Bulego eta Despatxoak, eta Merkataritza Orokorra. Prestazioak kapital moduan kobratu edo 2008. urtean beren errenta agortu dutenen bazkide zenbatekoari dagozkion bajak 2.161 dira. Bestetik, ez dira irteera edo sarrerako mobilizazio ezta intsuldaketarik gertatu.

Ekitaldiaren itxieratik gertaera aipagarriak

2009ko urtariletik, Euskadiko Aurreikuspen Entitatearen Federazioarekin arrisu prestazioen ordainketa estaltzeko berraseguru-kontratu berriitu da. Urte berrirako polizaren zenbatekoa Entitateko ekarpen guztien %6an mantentzen da. Kostu honen %50 GEROA PENTSIOAK BGAEK gain hartzen du.

2009. urtean zehar 2007/92 Dekretuaren 11. artikulua erabera aktiboen balorazio arauak egokitu dira, horretarako epirik luzeana 2010ko urtarrilak 1 da.

Bestalde, 2009ko ekitaldirako, prestazioak errenta moduan kobratzeko diru-mugak aldatzen dira, eskubide ekonomikoak 18.000 € eta hileko biziarteko errenta 100 € izango dira.

